

EUSKAL HERRIKO A. A. ETA MENDAUR. Gure artean izan da euskara ona edo euskara txarra «por Decreto» egin behar zela edo uste zuenik. Garai batean, Eusko Kontseiluaren denboran, *Deia* egunkariko bigarren orrialdetik «Mendaur» ari-tu zen erdaraz, jotake!, Boletin Ofizialak zerabilen euskara mota zigortuz.

Mendaurren jasa hura ekaitz bihurtu zen eta Xalbador salbatuko zuenik ez zen. Talde politikoen karnetak bere indarra bai dute.

Aldatu ziren gauzak, inork espero zezakean baino euskara txarragoa hartu zuen B. O. (Euskal Herriko A.ren A.) horrek: ulertezina, elkorra, euskaldunik gehienok erdarara behartzen gaituena. Eta, Mendaur, mutu!

Irailaren 9koan, erdarazko partean, Aduna jarri beharrez «Aduana» jarri zutela eta bazterretan hasarrea. Baina, zer esan beharko luke Mendaurrek euskaraz baldin badaki?

Bere isiltasuna ez da normala. Normalena, zera da, Xalbador «lanarigo»kide ez izatea. Baina, hala ere, lanean ari da.

IPUÇCHA, LEHEN DEITURA. Guk ere lehengo lepotik bu-rua. Berriz ere hemen gaituzu «giputzez». Izengoitia deitura bihurtu zen jakitea ez bait da gauza erraza. Uste hori ziurta-zerik ez dugu kaso honetan behintzat.

1984ko *Egan*-en 3-4 zenbakiaren 144-145 orrialdeetan XIV eta XV. mendeko *Guipus* eta *Guipuz*a deituradun pertsonaien berri eman genuen. Urte bereko 5-6 zenbakiaren 146. orrialdean gure egunotan mugazandik euskal kulturaren inguruan ari den Marie-Pierre *Iphutcha*-ren jatorria ber-bera zela agerra-raziz. Baina, gure entzumenera iritsi zaigu horietaz zalantzaren bat izan den zurrumurrua. Batez ere azkenekoan G-ren galera nabari delako

XI eta XII. mendetan *Ipuzcoa* agertzen zaigu eta ez *Guipuzcoa*. Beraz, aintzinagoko forma dugu Marie-Pierrereña. Zaharagoa zelan gorde den? Hori da gu geu ere harritzen gaitueña, eta agiriak agiri, lehenetasun horren kidekorik bada XI. mendean bertan. Olazabaltarrak San Juan de la Peña-ra egin zuten donazioaz 1925 eta 1048. urteko agiriak aski ezagunak dira gure probintziako historiaz zerbait arduratu denarentzat, eta hor, 1048. urtekoan. Gala de *Ipuçcha* garbi asko agertzen zaigu.

ARITXULEGI. Oiartzunen, Aiako Arriaren hegoaldeko lepoa da Aritxulegi. 1873. ekainean handik sartu zen Santa Kutz apezka bere soldadoekin Oiartzun hartzera. Han aritu zen «trabajadore»etan kaminogintzan eta kantari gure Basarri:

*Aritxulegi gañean
loa uzten dedanean,
zer poztasun barrenean!*

Guri ere ez digu lorik kendu igazko Egan-en 3-4 zenbakiaren 193. orrialdean aipatzen zen «Aritzeta eta Aritxulegi» arazoak. Baina, gure esanak esan, Agustin Goñi «Txomin»-ek *Vuelta a Guipúzcoa* liburuan, Arrichulegui eta Arrichulegi jarri zituen. Nonbait, harrika ibiltzea nahiago.

Lehenago ere esana genuen Oiartzungo historiaz liburu mar-dula idatzi zuela Manuel Lekuonak eta beste monografia labur bat Leandro Silván-ek. Biok, Aritxulegi (Arichulegui) dakarte. Bere jartorria (H)Arritik ala (H)Aritzetik datorren pentsatu gabe, agiri zaharretan hala zeudenez. 1921ean Toledon militar akademiak argitaratu zuen Eufrasio de Munarriz-en *Líneas de Guipúzcoa*-k ere hala zekarren. A. Ubietoren zuzendaritzapean baina hain ongi oinarritua ez den A. M. Inda Sauca-ren *Reper-torio de Nombres Geográficos. Guipuzcoa*-k (Valencia, 1976) hori behintzat ondo dakar Instituto Geográfico y Catastral-en 1 : 50.000 mapatik hartua.